



1880/2025 EBAZPENA, uztailaren 21ekoa, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtuko ESiko Obstetria eta Ginekologiako (Obstetria Arloa) atal sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen otsailaren 26ko 420/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Bilbo-Basurtuko ESiko Obstetria eta Ginekologiako (Obstetria Arloa) atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko martxoaren 26ko EHAA 59 zk. eta 2025eko apirilaren 8ko BOE 85 zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko maiatzaren 5ean amaitu zen.

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen maiatzaren 15ekoa 1098/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Obstetria eta Ginekologiako (Obstetria Arloa) atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2025eko uztailaren 21a.

Bilbo-Basurtuko zuzendari gerentea
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO


Osakidetza
BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO
**ZUZENDARI GERENTE
DIRECTOR GERENTE**
Izpt/Fdo.: Jesús Larrañaga Garitano



I. ERANSKINA

**BILBO-BASURTUKO ESIKO OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO (OBSTETRIZIA
ARLOA) ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA**

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- **Amelia Valladolid Urdangaray andrea**

Baztertuak:

- Inor ez

II. ERANSKINA**BILBO-BASURTUKO ESIKO OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO (OBSTETRIZIA ARLOA) ATAL SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA BALORAZIO BATZORDEA****Batzordeburua****Titularra: Alejandra Gil Molet and. (Bilbo-Basurtu ESiko zuzendari medikoa)**

Ordezkoa: Juan José Timiraos Fernandez jn. (Araba ESiko zuzendari medikoa)

Lehenengo kidea:**Titularra: Isabel Camargo Ibarra and. (Bilbo-Basurtu ESiko zuzendariorde medikoa)**

Ordezkoa: Olga Merino Ochoa and. (Bilbo-Basurtu ESiko zuzendariorde medikoa)

Bigarren kidea:**Titularra: Mercedes Fraca Padilla and. (Bilbo-Basurtu ESiko Obstetria eta Ginekologiako zerbitziburua)**

Ordezkoa: María Arantzazu Lecuona Artola and. (Donostialdea ESiko Obstetria eta Ginekologiako zerbitziburua)

Hirugarren kidea:**Titularra: Jose Maria Aritzeta Iraola jn. (Bilbo-Basurtu ESiko Obstetria eta Ginekologiako zerbitziburua)**

Ordezkoa: José Ramón Serrano Navarro jn. (Debagoiena ESiko Obstetria eta Ginekologiako zerbitziburua)

Laugarren kidea (IVAPek proposatua):**Titularra: Julio Ángel Moreno Domingo jn. (Bilbo-Basurtu ESiko Obstetria eta Ginekologiako atalburua)**

Ordezkoa: Jorge Burgos San Cristóbal jn. (OSI Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces Obstetria eta Ginekologiako atalburua)

Idazkaria:**Titularra: Maite Yeregui Huarte and. (Bilbo-Basurtu ESiko langileen zuzendariordea)**

Ordezkoa: Maitane Arrizabalaga Kaltzakorta and. (Barrualde-Galdakao ESiko langileen zuzendariordea)